

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Hilerrri turismoa



ARITZ GALARRAGA

Txani Rodriguezen azken eleberriko protagonista, Iruñe, alde guztietatik da maitagarria: ez du bikotekiderik, ez du seme-alabarik, bakarrik edaten du tabernetan, gizajendea nahiko ergela dela dio –kafea eta esnea konbinatzeko asmatu ditugun hamaika moduen harira–, maiteminduta dagoen jendeak molestutzen du, ondo pasatzen saiatzen ari diren taldeak ikus-teak tristatzen, etxean bakarrik lo ez egiteagatik batzen da protestan ari diren langileen kanpaldira. Eta da maitagarria batez ere inoiz ondorioztatu zuelako kostako herri ederretan bizi den jendea gupoa izan behar dela ezinbestean: egun oraindik ere esaten badiote adibidez Hondarribiko gizon bat aurkeztuko diotela, berak imajinatzen du gizon hori horail –gero eta ugariagoak diren ile zuriak onartzen badira, ados–, beltzaran –ilunpetan batez ere–, begirada ozeaniko batekin –gehi miopiarekin, win-win– eta bizkar babesle baten jabe –zeina okerragotzen ari den, eskuinetarantz–. Labur, Bernardo Atxagari bezala dena gustatu zaidala niri ere Txani Rodriguezen azken eleberritik.

Baina badu gauza bat non talka egiten dugun: Iruñek ez du partekatzen pertsona askok hilerrriak parke tematikoak balira bezala bisitatzeko duen afizioa, hilerrri turismoa dei genezakeena. Ez da ez zaizkiola hilerrriak gustatzen: ez zaizkio gustatzen eta ez zaizkio ez gustatzen ere, beharrezko ikusten ditu eta kito. Nahiz etxe bat baduen jabetzan eta beste etxe baten alokairua pagatzen duen bere gurasoak dautzan hilerrri ondoan bizitzeko. Nahiz lan mahaia hilerrira zuzendua duen hain zuzen gurasoen ikuskatzearekin lan egiteko. Nahiz lo egiten duen gorputza luze, hankak elkarrekin, besoak bular gainean gurutzatuta. Nahiago ditu hondartza birjinak, anfiteatro erromatarrak, karta museoak. Ados. Arantzatxoa kentzeko, ordea, Mariana Enríquez *Alguien camina sobre tu tumba* erostera joango naiz, konfiantzazko liburu dendara, hor ez bainaute nire afizio nekrofiloengatik gaizki begiratuko. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

“EUSKARAREN
BENETAKO MISTERIOA
EZ DA BERE JATORRIA,
IRAUPENA BAIZIK”



ADUR

“EZIN DUGU LEGITIMATU JAZARPENA, HERIOTZA”

IRUNGO HARRERA SAREA

Bidasoa ibaian Boli Kostako gazte migratzaile baten gorpua aurkitu dute maiatzaren 22an itota. Bidasoa ibaia zeharkatuz Hendaiara heldu nahi zuen gazteak. Duela hilabete bat, eritrear jatorriko beste gazte baten gorpua ere aurkitu zuten hortik gertu. “Atzo bertan salatu genuen pertsona migratzaileek Irun eta Hendaiara arteko mugan jasaten duten jazarpene eta ehiza egoera. Esan genuen azkenean hildakoak eragingo zituela egoera horrek. 24 ordu geroago hildako bat dugu dagoeneko. Ezin dugu normalizatu bizitza hobearen bila datozenen sufrimendua, ezin dugu legitimatu jazarpene, heriotza. Muga arrazistak, gizarte publiko baztertzailak ez dira aukera bakarra. Jendarte abegikorra garelako erakutsi behar dugu”. 2021/05/22

